



BARREN

TOKIKOM

Ehiza familian



NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com



The Power to Surprise

Aprobetxa itzazu KIAREN 10 egunak, eskaintza hobe-ezinekin baitotuz, baina KIAREN automobil-modelo berrietan ere.

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 3,9-7,8. CO₂ (g/km) isuriak: 100 - 178.

Gaudeu eskaintzaren baldintzak KIAko kontzesionarioen semeen edo www.kia.com irekigaitan. Eskaintza balioekas Iberiar Penintsulako, Guterako eta Helleniko kontzesionarioetarak. *Eskaintzatu KIAko berriei eskubiduna.

Tel.: 943 70 70 33

etxegain

BIZIGUNEA

3 LOGELAKO
**AZKEN
ETXEBIZITZAK**, 2
BAINUGELAK ETA
TERRAZA
**175.000€-tik
aurrera**

AZKEN DUPLEX-A
BEHEKO SOLAIRUAN,
BI PLAZAKO GARAJE
ITXITAREKIN,
TRASTELEKU ETA
TERRAZA
**270.000€-tik
aurrera**

2, 3 ETA 4
LOGELAKO
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK
10 M²-TIK
GORAKOAK

EGONGELA
GUZTIAK 20 M²-TIK
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK
DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN

etxegain goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriz goatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin, **etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



GE grupo eibar
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoelbar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OBRA FINANCIADA POR:

bankoa | Groupe
Crédit Agricole



Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

elgoibar

PASA, MESEDEZ, TXAPAK JASOTZERA!



Aukeratu duzuen rolari dagokion txapa jaso behar duzue Euskaraldia ariketan izena eman duzuen elgoibartarrok.

Bi toki izendatu ditugu horretarako:

Elgoibarko Izarraren bulegoan (11:00-14:00)
Euskaraldia lokalean (18:00-20:00)

Euskaraldian izena emateko epea azaroaren 23ra arte egongo da zabalik.

Nuala Elkartea



Mauxitxa Txaranga



Haritz Dantzari Taldea



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea



Morkaiko Mendizale Elkartea



Udal Euskaltegia



Gurutze Gorria



Elgoibarko Kale Kantariak



Bacalaos Alkortako langileak



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Ezkontza perfektua

nahiak identifikatzen; baina senarrak markatzen du zein diren baliozko erlazioak, zaindu behar direnak, bertatik onura bat jasoko dutelako.

Senarrak darama logistika; epe luzerako helburuak finkatzen ditu, beharrezko azpiegiturak diseinatzen ditu, eta erabilgarriak izango zaizkion kontaktuak egin eta mimatzen ditu.

Senarraren helburu horietara iristeko beharrezko langileak lortzen ditu emazteak; euren nahirik sakonenak beteko dituztelakoan indar guztiak eman zaien funtzioa betetzera zuzenduko dituztenak.

Ikus genezaken modura, ezkontide perfektuak dira, konbenientziakoak izan ohi diren modura; hauek bai era-

bat enkajutzen dute bi laranja erdi! Zirrkiturik uzten ez dutena seme alabak euren identitate propioa askatasunez osatzeko.

Gure oinarrizko erlazioak hartu ohi ditugu eredutzat eta kontziente egiteaz gain birpentsatzen ez baditugu eredu erreplikatzeko arriskua dugu. Eredu honen funtsa seme-alabei euren kabuz pentsatzen ez uztea da; euren beharretara aurreratuz, ezer eskatu beharrik izan ez dezaten, erabakitze aukera duten ilusioa sortuz. Eta noski, ezkontza perfektuetan gertatu ohi den modura perfektzio honetara egokitzen ez dena kanporatua eta zigortua izango da.

Noren antza duzu zuk? Amarena ala aitarena?

Ezkontza sendo bateko seme-alabak gara: patriarkatua eta kapitalismoa. Lehenak geure izaera eta erlazioak antolatzen ditu; bigarrenak, berriz, gure eginbeharrak eta funtzioak. Bikote honetan patriarkatua litzateke emaztea.

Emazteak erlazioen ardura hartzen du, trebea baita besteen beharrak eta

“Eredu honen funtsa seme-alabei euren kabuz pentsatzen ez uztea da; euren beharretara aurreratuz, ezer eskatu beharrik izan ez dezaten”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskititzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloea Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ESKERRAK EMATEKO BEHARRA

Domusantu egunean nire anaia erori egin zen Olasoko hilerrian eta han zeuden hainbat herritarrek anbulatoriora eraman zuten. Eskerrik asko, bihotz bihotzez. Dena dela, eskerrak aurrez aurre emateko beharra sentitzen dut, baina ez dakit nortzuk diren lagundu zioten haiek. Lerro hauek irakurriz gero, nirekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diet, 688 690 858 telefono zenbakira deituta (Eulogio Astigarraga).

E.A.

▶ KAKA ZAHARRA

Ezkorrok bestelakoa espero bagenuen ere, aurreikuspenak (eskerrak!) ez ziren bete, eta pozik gaude. Izan ere, horrelako Herritarrengandik, eta beste gainontzeko-erengandik, ezin gauza onik espero. Halarik ere, aukera izan zuten (nola ez!) lehorreratzeko, eta komuneko markazurrian sinadura uzteko ("Viva España", "Viva la guardia civil"). Baina horrek ez dakit, bada, etorritako kakalarri gutxien beharra asebeteko zuen: Altsasu leku oso ona zuten (inon ez bezala) barrukoa libratzeko, bestelako usaina lagatzeko. Edonola ere, ez zuten helburua lortu, eta badakite oso ondo, gainera, nahiz eta Riverak, Fernando Savaterrek, eta Cake Minuesak bezalako gogoetagileek sekulako ahaleginik egin, eta espainiar komunikabideek herriko gazteen hormetan irudikatutako askatasunaren irria ezabatzen beherakoaren zirina erabili. Oihartzuna zabaldu nahi zuten, askatasun ezkilak isilarazi, baina barregarri gelditu ziren, eta bonbari tira baino lehenago mokordoak egindako kaka zaharra baino ez zuten egin.

Juan Luis Mugertza

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEan edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleiaz datoren eskutitzik argitaratuko.



Antonio Perez Sanchez

2018ko azaroaren 5ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Bekak eta dirulaguntzak atzerriko programetarako

www.afs-intercultura.org/bekak

Eguna: azaroak, 10, larunbata

Ordua: 17:00

Lekua: Ipurua futbol zelaia Formakuntza gela Indalezio Ojanguren kalea, Eibar

Zetoz gu ezogutzero!




Laguntzaileak:  SDEIBAR  Eibariko Pellen Federazioa

Miguel Angel Montes Cometel enpresako nagusiari emango diote aurten Korta Sarietako bat



Korta Sarietako saridunak jakinarazi ditu Eusko Jaurlaritzak, eta aurten, Elgoibarko Cometel enpresako Miguel Angel Montes zuzendari nagusiak jasoko du lau sarietako bat. Lanbide Heziketako ikasketak amaitu eta Elgoibarren makina-erremintaren sektoreko zenbait eremutan lan egin ondoren, Miguel Angel Montesez Cometel enpresa sortu zuen 1987an, aitagarrebarekin eta emaztearekin batera. Hasieran, makina-erremintarako osagarriak diseinatzen eta fabrikatzen zituzten, baina 1993an, plangintza aldatu eta ekipoen amaierako erabiltzaileentzako produktu eta zerbitzuak ekoiztera bideratu zuten ekoizpena. Cometel Espainiako eta Portugalgo enpresa lider bilakatu zuen Miguel Angel Montesez. 2007an Cometel Amerikan ere finkatu zen eta filiala ireki zuen Queretaron (Mexiko), eta, urte berean, Cometel Recycling Solutions enpresa sortu zuten. Korta Sarietako epaimahaiaren esanetan, nazioartean zabaltzeko apustu irmoa egin zuen Cometelek, "betiere tokiko enpresa hornitzaileak oinarri izanik eta enpresa sortzen ikusi zuen Gipuzkoako gunearen ongi egiten jakitea aprobetxatuz". Cometel erreferentzia bilakatu da bere sektorean, enpresa esportatzaile gisa. 2010ean, Gipuzkoako Ganberak Nazioartekotze Saria eman zion. 2012tik Montes kontseilaria da AFM - Makina-Erreminten Fabrikatzaileen Elkartearen. Iñigo Urkullu lehendakariak banatuko ditu Korta Sariak azaroaren 13an, Donostian.

Pediatria saileko kontsultategiko sabaia behera etorri zen Elgoibarko anbulatorioan



Elgoibarko anbulatorioko pediatria kontsultategiko sabaia erori egin zen urriaren 29an. Goizeko 10:30ak aldera gertatu zen ezbeharra, baina zorionez, ez zuen inor harrapatu, anbulatorioko bertako iturriek jakinarazi zuten.

Ezbeharra gertatu ostean, ondoko bulegoak ere aztertu zituzten teknikariek, baina ez zuten bestelako arriskurik antzeman. Kontsultategi hori itxita egon zen ondorengo egunetan, baina ez, ordea, zerbitzua. Txanda guztiak bere horretan mantendu zituzten.


Kilo eta erdiko onddoa aurkitu du Egoitz Rodriguezek

Egoitz Rodriguez elgoibartarrak 1.554 gramoko onddoa batu zuen joan den asteburuan. Nafarroa inguruko basoren batean aurkitu zuen pieza preziatua, baina ohikoa den moduan, leku zehatzaren kokalekua sekretupean gorde du Rodriguezek. Batutako onddoak duen zaporea ere probatu du Rodriguezek: "Ezin izan nuen dena jan eta hutsean enbasatu nituen gainerako zatiak urtean zehar jateko". Aurten euri gutxi egin duela diote adituek, eta perretxiko gutxi omen dago inguruko mendietan.



Herriko merkataritza sustatzeko bono-kanpaina jarri du martxan Txankakua Merkatarari Elkarteak

Kontsumoa bultzatu eta herriko merkataritza sustatzeko bono-kanpaina jarri du martxan Txankakua merkatarien elkarteak aurten ere. 40 euroko bonoa erosita, 50 euroko erosketa egin ahal izango da hil amaierara bitartean. Kalebarren plazan ireki duten lokalean eros daitezke bonuak gaurtik aurrera. Aurreko urteetan moduan, Txankakuaren bonoa 25 euroko bi zatitan banatuta egongo da; hortaz, gutxienez 25 euroko erosketa egin behar da. Nahi izanez gero, 50 euroko bi bono elkartzeko aukera ere badago, eta horrela 100 euroko erosketa egin. Mila bono atera dituzte guztira, eta Kalebarren plazan ipini duten lokalean erosi ahal izango dira azaroaren 30era arte, edo bonuak agortzen diren arte. Bonuak ez dira inoiz diruagatik trukagarriak izango, produktua itzultzen bada eta besteren bat ez bada eramaten, merkataria erosketa txartel bat igorriko du erosketaren zenbatekoarekin. Kanpaina honetan Elgoibarren errolatuta daudenek bakarrik hartu ahal izango dute parte.



Estrasburgoko auzitegiak ebatzi du 'Bateragune auzian' zigortutakoek ez zutela epaiketa inpartzialik izan

Bateragune auzian zigortutako bost lagunek, tartean Arnaldo Otegi elgoibartarrak, Europako Giza Eskubideen Auzitegira jo zuten, Angela Murillo Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailea ez zela inpartziala izan iritzita. Estrasburgoko auzitegiak martitzenean eman zuen epaiaren berri, eta ebatzi zuen Europako Giza Eskubideen 16. artikulua urratu zela. *Bateragune auzian* bidezko prozesu baterako eskubidea ez zela errespetatu ebatzi du Estrasburgoko auzitegiak eta *Bateragune auzian* zigortutakoek ez zutela epaiketa justu eta inpartziala izan. Angela Murillo Auzitegi Nazionaleko epailearen kontra aurkeztutako errekusazio helegitea kontuan ez hartzeagatik zigortu du Auzitegiak Espainia. "Gezurrekin eta akusazio faltsuekin espetxeratu gintuzten, zigorra



bete genuen... Bake estrategia erakitzeagatik espetxeratu gintuzten. Gaur agerian utzi dute beraien gezurra. Gure irribarrea zabalagoa da eta Espainia den bezalakoa agertu da: estatu antidemokratikoa", idatzi zuen Otegi bere Twitter kontuan.

Trenbide kalea itxita egongo da pare bat astez, Aita Agirreko obregatik

Aita Agirre kulturguneko obrak direla-eta, Trenbide kalea itxita egon da aste honetan, eta datorren astean ere halaxe jarraituko du. Argindarraren kableentzako hodiak sartu behar dituzte eta horretarako kendu dituzte Aita Agirre eta Musika Eskola artean zeuden eskailerak. Pare bat astean bukatuko dituzte lanak. Aita Agirre eraikineko obrak, bestalde, bide onean doazela jakinarazi dute Hirigintza Sailetik, eta ondo bidean, urtarillaren erdialderako bukatuko dituztela lanak.

Ama Birjina Milagrosaren egutegiak salgai daude

Aurreko urteetan bezala, salgai jarri dituzte aurten ere Ama Birjina Milagrosaren 2019ko egutegiak. Hiru tokitan erosi ahal izango dira: Maalako elizako sakristian (elizkizun orduetan), San Bartolome parrokiako sakristian (Milagrosaren bederatzizurrenetik aurrera, elizkizun orduetan), eta San Lazaro egoitzan 10:45etik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Egoitzaren eguneroko funtzionamendua ez oztopatzeko ordutegi hori errespetatzeko eskatu dute arduradunek.

KPI-aren arabera igoko ditu 2019rako ordenantza fiskalak Elgoibarko Udalak salbuespen batzuekin

Elgoibarko Udalak 2019rako ordenantza fiskalen gaineko tasak onartu ditu EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EHBilduk kontra bozkatu zuen.

Oro har, ordenantza fiskalak KPI-aren arabera (%2,2) eguneratzea adostu du Udal Gobernuak, baina aurten ere salbuespen batzuk egongo dira. Iaz %1,8ko igoera izan zuten eta aurreko lau urteetan ordenantza fiskalak izoztuta egon dira. Urte "txar" batzuen ondoren, joera ekonomikoa goranzkoa dela nabarmendu zuten. Bittori Zabala Elgoibarko Udaleko Ogasun zinegotziak esan zuen ziklo ekonomikoaren goranzko joeran murgilduta gaudela, baina hala ere, ez garela "euforian" erori behar: "Gure baliabide publikoak erantzukizunez eta zorroztasunez kudeatzen jarraitu behar dugu, eta 2019ko ordenantzek egoera horri erantzuten diote".

Salbuespenak

Ordenantzen igoera bateratua izango bada ere, salbuespen batzuk egongo dira: zaborraren gaineko tasa, esaterako, KPI-aren azpitik igoko dute, %1,89. Udal Gobernuak esanda-koaren arabera, hazkunde hori nahikoa izango da Elgoibarko



Udalak Debarreneko Mankomunitateari jasotako zerbitzuen-gatik ordaindu behar dion kopuruari aurre egiteko.

Kirol Patronatuaren tasei dagokienez, kontzeptu batzuetan irizpide orokorrari jarraitzea erabaki dute (%2,2ko igoera), baina beste kontzeptu batzuetan ez da igoerarik egongo. Hainbat motatako sarrerek, talde bereziek eta aire libreko instalakuntzek, esaterako, ez dute igoerarik izango.

Azkenik, Bittori Zabalak adierazi zuenez, etorkizuneko erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa da Udala testuinguru jasangarri batetik abiatzea. Egun, Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua dela nabarmendu zuen, eta denon artean baliabideak handitzen jarraitu behar dugula gaineratu zuen.

Gaur hasiko da 'Tripontziak' ekimen gastronomikoa

Gaur hasi eta azaroaren 25era arte antolatu dute *Tripontziak* ekimen gastronomikoa Debegesa Garapen Agentziak eta Debarreneko Klub Gastronomikoak. Aurten eskualdeko bederatzita jatek hartuko dute parte: Belaustegi (Elgoibar), Azitain (Eibar), Hostal Itziar eta Kanala (Itziar), Bordatxo eta Urgain (Deba), Lasurko taberna (Lastur), Mendiola (Ermua) eta Pikua (Mutriku). Sasoiaren sasoiko produktuak kontsumitzea, eskualdeko ostalaritza sektoreari bultzada ematea eta Debarreneko establezimendu gastronomikoak zein bertako produktuak balioan jartzea dira ekimenaren helburuak.

Azaroaren 19an zabalduko da Mendaron gabonleketan izena emateko epea

Aurten ere antolatu ditu Mendaroko Udalak gabonlekuak eta azaroaren 19an zabalduko dute izena emateko epea (azaroaren 30a izango da azken eguna). Sei egunerako gabonlekuak izango dira (abenduaren 26-27 eta 28 eta urtarrilak 2-3-4), goizez, 9:30etik 13:00etara, eta HH3tik LH6ra bitarteko umeek eman ahalko dute izena. Haur bakoitzak 55 euro ordaindu behar ditu. Familia ugarien kasuan, baina, hirugarren umeak 40 euro ordainduko ditu, eta Mendaron erroldatuta ez dagoen umeentzako matrikulak 120 euroko kostua izango du. Informazio gehiagorako: www.mendaro.eus

AZAROA REN 9tik 25era

AZITAIN Erretegia (Eibar)

- Debabarreneko sasoiko barazkien menestra
- Kantauriko bakailaoa piperradarekin
- Eusko Label azpizuna guarnizioarekin
- Etxeko gazta-tarta Mendaroko txokolate urtuarekin

Azitain, 6 - T. 943 12 18 54
www.asador-azitain.com

BELAUSTEGI Jatetxea (Elgoibar)

- Etxeko apertiboa
- Zeletako tomateko Ondarroako anbroa eta piperrekin
- Nutrikuko txipirolak euren tintan
- Euskal Txerri azpizunarekin egindako brotxetak sasoiko barazkiekin
- Mendaroko txokolatearekin egindako lingotea platano moussearekin eta baserriko pikuen izozkiarekin

San Miguel gaina, 44 - T. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

MENDIOLA Jatetxea (Ermua)

- Alkorta bakailao entsalada Debabarreneko barazki-eskalibadaren gainean
- Lumagorri hostorea Jokin Jaunaren onddo saltsarekin
- Zapoa sesamo zarakarrarekin, Sagamiña txakolinez egindako olio errearekin eta Berano Txiki baserriko aza saltsarekin
- Euskal Txerri sailhetsak temperatura baxuan erreta, Arabako patataren gainean
- Mausitxa gazta-moussea Mendaroko txokolatearekin eta kakao-crumblearekin

Erdikokale kalea, 19 - T. 846 08 00 86

PIKUA Jatetxea (Mutriku)

- Kantauriko hegaluzeaz egindako entsalada
- Geoparkeko arrainez egindako etxeko zopa
- Kantauriko legatza saltsa berdean, arrautza egosiarekin eta zainzuriekin
- Oliosoro baserriko entrekota parrillan erreta
- Mendaroko txokolateaz egindako brownia izozkiarekin

Laranga auzoa, 2/g - T. 943 60 32 42

*AZAROA REN 19tik AURRERA ITXITA



*Erreserbatu zure
Tripontziak menua!*



Jatetxe guztietan botilla 1 aukeran:
Sagardoa, Txakolina edo
Arabar Errioxako Ardoa
Ura, kafea eta BEZa barne



#DEBABARRENA

www.debabarrenaturismo.com



Eman zure Tripontziak
esperientziaren berri sare sozialetan
eta irabazi sari bikainak!

ANIMATU ETA PARTE HARTU, TRIPONTZI!

BORDATXO Jatetxea (Deba)

- Urasandiko onddo Royals sasiko ziza kremarekin
- Arrankasiko perloi zopa marinel erara
- Aitzola baserriko behi-sailhetsa labean erreta
- Pantxineia Bordatxo erara Mendaroko txokolatearekin

Zesterokua plaza, 1-2 - T. 943 02 93 76

HOSTAL ITZIAR Jatetxea (Deba)

- Doniene baserriko barazkiak tenpura, Olabe baserriko arrautzekin
- Olio-patea, Flysch txakolinearekin egindako masusta mermeladarekin
- Beliosoro baserriko Angus txahal biribilkia tipula karamelizatuarekin
- Mendaroko txokolate-trufak

Itziar gaina, 2/g - T. 943 19 90 61
www.hostalitziar.es

KANALA Jatetxea (Deba)

- Itsaspeko Uzkanga baserriko kalabazarekin egindako krema
- Lasturko Kortaberri baserriko barazki eta Flyscheko arrainez egindako zopa
- Geoparkeko legatz-kokotea egur-ikatzeko txingarretan erreta
- Eusko Label txahalez betetako piperrak euren zukuari eta Uzkanga baserriko tomatez egindako saltsan
- Mendaroko txokolatezko tarta bananaz

Itziar auzoa, 2 - T. 943 19 90 35
www.hotelkanala.com

URGAIN Jatetxea (Deba)

- Onddoz eta Geoparkeko arrainez egindako kroketak
- Perretxiko-entsalada epela
- Kantauriko arrain- eta itsaski-krema
- Geoparkeko legatza edo rapea plantxan panadera patatekin, edo Eusko Label entrekota
- Sagar-hostorea Mendaroko txokolatezko moussearekin

Hondartza, 5 - T. 943 19 11 01
www.urgain.net

LASTURKO TABERNA Jatetxea (Deba)

- Bakailao entsalada epela eta Olabe baserriko arrautza ekologiko frijituz hornituriko Lasturko Taloa, J.D. Getariako Mokoroa txakolin kopaz lagundurik
- Kantauri itsasoko legatz-xerra plantxan, sasoi eta bertako barazki guarnizioarekin, J.D. Getariako Mokoroa txakolin koparekin
- Bertako sagarrez egindako krema eta onddo perretxikoz osaturiko Euskal Txerri azpizuna
- Mendaroko txokolateaz gozatutik egindako etxeko sumendi-tarta

San Nikolas plaza - Lastur - T. 943 19 90 33
www.lastur.eus



TURISMO, MENDIARITZA
ERANTZUNEN GELA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
CONSEJO CONSULTIVO

BASQUE
COUNTRY





Egañatarren saga

Joxe Mari Egaña eta haren seme-alaba Arkaitz eta Leire, Bat, Lan eta Mendi txakurrekin.

Ehizarako zaletasuna etxetik datorkie mintxetatarrei. Egaña dira abizenez, baiña etxeak eman die izena Joxe Mariri eta haren bi seme-alabei, Arkaitzi eta Leireri. Herri-kiroletan egindako urteengatik dugu ezaguna Joxe Mari Elgoibarren eta inguruotan, baina harri-jasotzen eta frontzan hasi aurrekoa du ehizarako afizioa, eta ahalegin berezirik egin gabe transmititu die seme-alabei. Ehiza xehe txapelketetan makina bat lorpen pilatu dituzte hiruren artean eta ez daude lagatzeko ere. Urriaren 12an ehiza denboraldia hasi eta astebetera bildu ginen haiekin, Euskal Herriko txapelketa jokatu bezperetan.

- AINARA ARGOTIA -

Barixaku arratsaldea da, eta Pancorbora (Burgos, Espainia) joateko prestatzen ari dira Joxe Mari Egaña eta emaztea, Juani Bastida. Urriaren 12an zabaldu zuten ehiza-denboraldia eta ez daude denbora galtzeko. Pancorbon dute ehiza-barrutia egañatarrek eta ahal duten guztietan joaten dira. "Ordubeteko bidea dago; gehiagorik ez. Neguan, goizean ardi-jirak eginda joaten gara". Irten aurretik hartu gaituzte, etxean, Mintxeta baserrian. Egun berezia dute gaurkoa. Joxe Mari etxeko nagusiaren urtebetetze-eguna da, baina domekara atzeratu dute ospakizuna, Arkaitz semearen aginduz. Domekan, Euskal Herriko ehiza-xehe txapelketa jokatu dute Zanbranan (Araba), eta ezin

da gozo artean galtzeko arriskurik hartu. "Han ospatuko dugu. Ia beste zerbait ere ospatzeko moduan gauden", bota du Leirek [Motiborik izan zuten ospatzeko urriaren 21eko hartan. Txapeldun izan zen Leire, eta bigarren egin zuten Arkaitzek]. Bera da etxean eskopeta erabiltzeko baimena atera duen azkena, baina txapel batzuk irabazi ditu dagoeneko. Aitaren afizioa jaso dute Arkaitz eta Leire neba-arrebek, txoritako afizioa ume-umetatik izan duelako Joxe Marik. "Akordatzen naiz 7 urterako derrigor harrapatu behar izaten nituela txori txikiak. Hor egoten nintzen hotzak akabatzen, zain. Geratu gabekoa izaten nuen", oroitu du. Herri-kirolekin lotu izan dira Mintxeta familiakoak Elgoibarren. Joxe Mariren



eman zuen lehena. Hasiera-hasieratik lehiatu da, eta makina bat lorpen pilatu ditu; handiena, Espainiako Txapelketako lehen postuak [Birritan irabazi du Espainiako Txapelketa, 2012an eta 2015ean]. Leireren kasua beste bat izan da. Iaz atera zuen eskopeta erabiltzeko baimena, urtebetez aita eta nebarekin ehiza-barrutira joaten egon ostean, baina baimena lortu eta txapelketarako aurkeztea dena bat izan zen bere kasuan. "Gustatu beti gustatu izan zait, baina Arkaitzek baino afizio txikiagoa izan dut beti, mendian ibiltzeko beti izan naizelako alfertxoagoa". Eta aitak ondotik: "Ez nion nik honi ehizarako trazarik hartzen. Hor, kale aldean, erraz galtzen da jendea, eta gauean berandu erretiratuta jai dago goizean goiz jaikitzeko". Eman zuen pausoa, baina, eta sendo eman ere, baimena atera eta txapelketarako izena ematea dena bat izan zuelako; baita aurkeztu eta txapela janztea ere. Izan ere, Gipuzkako eta Euskadiko txapelketak irabazi zituen Lan txakurra lagun zuela.

Txapelketak bizi dituzte, baina inoren aurrean ezer erakutsi beharrak baino gehiago betetzen ditu mendira irten eta txoritan ibiltzeak. "Txapelketetan ibiltzea nekagarria da. Neke txarra da gainera, nekatzen dena burua delako", dio Arkaitzek. Hemen inguruan eta Burgosen, Pancorbon, errenditzen dute bestela ehizarako afizioa, eta familiar joan zaleak dira hara. "Orain, epaile lanetan hasi da ama ere. Hirurok joaten garenean hiru epaile behar izaten ditugu, eta ama mendian ibili zalea denez eta bestela ere beti joaten zenez gurekin hara ba... animatu dugu. Txapelketakoa egun ederra izaten da", esan du Leirek.

Mendizaleatasuna ezinbestekoa du ehiztariak. "Ehizara irteten garenean, zazpi-zortzi ordu egiten ditugu hara-hona, eta txapelketetan bost-sei bat ordu bai. Kilometro asko beraz. Hasiera, gainera, oso azkarra izaten da, eta sasoiko egon beharra dago. Atleta izan beharrik ez dago, baina izanez gero, hobeto", nabarmendu du Arkaitzek. Ehiza-barrutian ertz batetik abiatzen dira ehiztari guztiak,


arrapaladan sarri, txoriak dabizen ingurura azkar iristeak dezente erraztu diezaiokeelako egitekoa ehiztariari. Horrek eta txakur ona izateak ere bai.

TXAKURRAREN MERITUAK

"%60 txakurrak egiten du", dio Joxe Marik. Estimutan ditu etxeokoa. "Ez da erraza txakur ona lortzea, eta guk hiru ditugu onak orain", esan du Arkaitzek. Ona izateko, txakurrak zer ezaugarri behar dituen galdetuta ez dute zalantzarik egin. "Berekoa behar du parte bat, baina ibili ere egin behar da txakurra, ona izango bada. Baina bai, usaimen ona izan behar du, eta esanekoa izan behar da, txoria ikusi eta geldituko dena, uxatu aurretik", zehaztu du Joxe Marik. Setter ingelesak dira eurenak, ehiza-txakurrak. "Galeper usaina hartzerako zoratu egiten dira bi hilabetekoak ere". Nolanahi ere, ehizarako dohaia izateak ez dakar ezinbestean txapelketetan ona izatea. "Jende artean ibili behar izaten dute han, eta harrapatu beharreko txoriak ere etxaldeen hazitakoak izaten dira, beste usain batekoak".

Zanbranan bertan dago etxaldea, eta txapelketa-egunean ehiztariak bi pieza inguru lagatzen dituzte libre goizean goiz. Haien nork azkarrago bota da jokoa, baina ez dute joko soiltzat ehiza. Jakin badakite entzute onik ez duela egiten dutenak eta inoiz baino ozenago entzuten direla ehizaren kontrako ahotsak, baina ez daude ezkutatzeko. "Eperrak hiltzen ditugu, bai, baina botatako guztia jaten dugu. Harategian oilaskoa erosi duenak ere jakingo du ba oilasko hori gusturago egongo zela oilategian, ala?. Baina oilaskoak ere hil egiten ditugu, jateko. Hegaztiak eta mendia guk baino gehiago estimatzen duenik nekez egongo da", esan du Leirek. "Ehiza sasoa ez denean ere sarri joaten naiz ni Pancorbora eperrak eta galeperrak ikustera eta haiei argazkiak egitera. Hegaztiak eta haien ugaltze-sasoia ere zaintzen ditugu, geuri interesatzen zaigulako piezak egotea. Txakurrak, txoriak... Animalia zale handienak geugara", gehitu du ondotik Joxe Marik.

anaia zenak, Pedro Marik, makina bat urtean egin zuen harri-jasotzen, eta Joxe Mari bera ere ibili zenaldi batez, baina trontzan egindako ibiliagatik da ezagunagoa. Horren denen gaitetikoa du, baina, ehizarako afana, eta harro dago, jakina, ondorengoek ere har hori ekarri dutela ikusita. "Ehizatik nentorrenean, etxeburuan izaten nuen beti zain. Sekulako afizioa izan du txiki-txikitatik", dio semeaz. Gazte hasi zen Arkaitz aitari segika, eta eskopeta ateratzeko baimena 14 urterekin atera zuen, legez aukera izan bezain laster. 18 urtera arte, hala ere, aitarekin ibili zen beti, baimena izanda ere, adinez nagusi den batekin ibiltzera behartzen delako legez, heldutasunera iritsi arte. Bera izan zen, baina, 18 urterekin, egañatarrenean txapelketetarako aurkezteko pausoa



Jose Mari Gurrutxaga Pradera

2018ko urriaren 23an hil zen.

***Aurretik zuek izan zineten,
ta orain hemen gara gu,
zuei esker jasotakoa
guk gurekin daramagu.
Egindakoa eta emana
izango dugu testigu,
inor ez da ta berez joaten
hemen gogoan badugu.
Besarkada bat, Jose Mari ta,
beti gogoan zaitugu.***



Isabel Azpeleta Iturricastillo

2018ko azaroaren 2an hil zen, 49 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Agur laztana



Betirako bihotzean

Iñaxio Betelu Azurmendi

2018ko azaroaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



***Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.
Gure bihotzetan
beti maite izango zaitugu.***



Senideak

▶ ONU: Auzo sentimenduak batuta egingo dute ospakizuna bihar

Auzo, kale eta bazter guztiek dute euren xarma, baina Elgoibarren bada kale bat benetan berezia dena. Ermuaranbide izena dauka gaur egun, baina sorreran San Franzisko izena zeukan, eta Frankismo garaian Avenida 21 de septiembre izena hartu zuen, Francoren tropak kale horretatik sartu zirelako Elgoibarrera. Izenak izen, kale horri ONU deitzen zioten herritarrek, jatorri desberdinetako bizilagunak jarri zirelako bizitzen bertan. Auzo sentimenduak batzen ditu bertako bizilagunak, eta sentimendu hori oinarri hartuta, ospakizun berezia egingo dute bihar.

50eko hamarkadan jende asko iritsi zen Elgoibarrera Espainiako herrialde desberdinetatik. Industrializazio garaia zen, eta lanera etorri ziren gehienak. Familia horietako asko Ermuaranbide kalean jarri ziren bizitzen. Galiziatik, Extremaduratik, Andaluziatik, Gaztelatik eta beste hainbat lekutatik etorri zen jendea eta aniztasun horren ondorioz jarri zioten kaleari ONU izena. Gerardo Oterok gogoratzen du bere etxepeko bosgarren solairuan jatorri desberdinetako zortzi familia bizi zirela lau etxetan: "Eguberritan jende pila bat biltzen ginen han". Andoni Segundo bigarren solairuan bizi zen, eta berretsi egin du bosgarren solairu hartan sekulako



Ermuaranbide auzoaren antzinako irudia.

giroa zegoela eta denek nahi izaten zutela hara joatea. Bosgarren solairu hari esaten zitzaion ONU hasieran, eta gero kaleak hartu zuen izena. Jatorri anitzekoak batzea, oztopo baino, aberasgarri izan da. Auzo solidarioa izan da, eta kanpotik etorritako guztiak "eskuzabaltasunez" hartu izan dira. Umetan eginiko lagunak betirako direla nabarmendu dute: "Familia handi bat ginen". Auzo sentimenduak batzen ditu, eta auzotik kanpora bizi arren, harro diote ONUkoak direla, bihotzean daramate.

Egitaraua

Hirugarren urtez batuko dira bihar Ermuaranbide kaleko bizilagunak. Aurreko bi edizioek izan duten arrakasta ikusita, bizilagunak hirugarren topaldi bat nahi zuten, eta eskari horri erantzun diote Andoni Segundok, Gerardo Oterok eta Gloria Bollarrek. Mimo handiz prestatu dute biharko egitaraua, baina antolatzaileek erreleboa eskatu dute hurrengorako. Biharkoa, baina, prest dute, eta ehun bat lagun batuko dira, oraingo eta aspaldiko kontuez berba egiteko. Aurten, auzoko eta auzotarren argazkiez gain, auzoan bizi izandakoak bideoan jasotzeko eskaera egin diete bizilagunei, eta garai hartako oroitzapenak jaso dituzte bideo batean. Herriko Antzokian estreinatuko dute bihar. 11:15ean elkartuko dira Txarriduna hotelean luntxa egiteko, eta 12:30ean egingo dute ekitaldia Herriko Antzokian. Espreski ekitaldirako prestatutako bideoa ikusiko dute lehenengo, eta segidan auzoko adinekoei omenaldi txiki bat egingo diete. 14:30ean elkarrekin bazkalduko dute Sigma jatetxean.



Auzoko adinekoak omendu zituzten Herriko Antzokian.




Kintoen egun

Kintoen eguna izendatua zuten Elgoibarren urriaren 27a, estreinakoz, eta aurreikuspen onenak 1.000 lagunetik gora, baina aurrez, argazki handia atera zuten denek elkarrekin Kalegoen plazan.



arrakastatsua

bete egin ziren. Elkarrekin bazkaldu edo afaltzeko elkartu ziren herriko 23 kinto-talde, Mausitxa txarangaren hamaikakoa ere batu zen argazkira, Euskaraldiaren hizki eta ikurrekin.



Manuela Churruca Lazarobaster

2018ko azaroaren 5ean hil zen, 91 urte zituela.

*Aurrerakoi eta buru argi
zuk zenuen munduaren ikuspegi
zabal eta desberdin
zu izan zara guretzat
ama aitzindari.*



I. URTEURRENA

Txomin Barrenetxea Urkiola

"Borrajen"

2017ko azaroaren 5ean hil zen, 78 urte zituela. I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroaren 10ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

*Aitxitxa Txomin,
zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean,
beti izango zara gure artean.*



Eskertzak eta urteurrenak
943 744 112



Tomas Olasolo Alcibar-Arechuluaga

2018ko urriaren 29an hil zen, 69 urterekin.



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



Etxekoak

Txitxibilaldiak taldekoek Dolomitetara egindako bidaia, Morkaikoren mendiko emanaldietan



Dolomiti: *piano piano, si va lontano* izeneko emanaldia izango da Morkaikoren 2018ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloko hirugarrena. Azaroaren 15ean, eguena, eskainiko dute musika eskolako auditoriumean (20:00). 1984. urtetik, urtero-urtero mendi irteerak egin dituzte Elgoibarko zein inguruko herrietako hainbat emakumek, Txitxibilaldiak izenarekin. Joan den uztailean Italiako Dolomita mendietara egindako bidaiaren nondik norakoak kontatuko dituzte.

Bingo solidarioan batutako dirua Gurutze Gorriari eman dio Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak



SanloBeerfest garagardo azokaren barruan Bingo solidarioa egin zuen Sanlo eskubaloi taldeak, eta batu zuten diruaren zati bat, 595,40 euro, Elgoibarko Gurutze Gorriari eman diote. Sanloko arduradunek joan den urriaren 27an eman zioten txekia Gurutze Gorriko lagunei, Alcorita Forging Group taldeak jokatu zuen partida hasi aurretik.



Moruko Burdin Aroko herrixkara bisita gidatua, bihar

Inguruko natura eta ondarea ezagutzeko mendi irteera zikloaren barruan, Moruko Burdin Aroko herrixkaren aztarnak eta historia ezagutzeko irteera antolatu du Morkaikok zapaturako (azaroak 8). Iñaki Etxaniz Tesouro elgoibartarra eta Jokin Lanz Betelu izango dira irteerako gidariak. Etxaniz Historian lizentziatua da, eta lagun duen Lanz historialaria gonbidatu du irteerara, Burdin Aroan aditua baita. Aranzadi Zientzi Elkarteko kideek 60. hamarkadan aurkitu zituzten Morun Burdin Aroko herrixka baten aztarnak. Gipuzkoan aurkitu diren burdin aroko hiru herrietako bat da Morukoa. Sigmatik ibiltzen igo nahi dutenek 10:00etarako Kalegoen plazara agertu beharko dute. Gainerakoentzako hitzordua 11:30ean izango da Idorben. Ordubete inguruko iraupena izango du bisita gidatua.

Gipuzkoako Pala Txapelketako finalerdia, Ikastolako frontoian

Kepa Arrizabalagak eta Gorka Lizarraldekin osatutako bikotea gomazko paletako Gipuzkoako Txapelketako finalerdia jokatuko sailkatu da, bigarren mailan. Lagunak taldeko bikoteak gaur jokatuko du joaneko partida Ikastolako frontoian (20:30). Loiolarrak taldeko bikotea (Ubeda eta Zumeta) izango dute aurkari. Elgoibarko pilotariak partida gehiago ere jokatuko dituzte, gaur eta bihar, Ikastolako frontoian. Gaur 19:00etan hasiko dira partidak. Eskuz banakako lau partida, hain zuzen ere. Zapatuan, 11:00etatik aurrera, bi partida jokatuko dira, eskuz banaka lehena eta palaz bigarrena.

Ipuinak familian: sortzeko, entzuteko eta kontatzeko



Jon Olivares, Ludotekan umeei ipuinak kontatzen.

Umeak lokartzeko eta helduak esnatzeko direla ipuinak sarri entzun izan dugu, baina horretarako baino gehiagorako balio dute ipuinek. Umeak entretenitzeko balio dute, baina umeen heziketarako ere tresna oso baliagarriak dira, betiere teknika egokiak erabiltzen badira. Gai ugari landu daitezke ipuinekin, modu ludiko eta dibertigarrian, eta umeei euren beldurrak gainditzen laguntzen diete. Era berean, kontalari eta umearen arteko harremana ere lantzen da, eta baloretan hezteko oso baliagarriak dira.

Ipuin kontaketa unea oso momentu berezia izaten da, baina gurasoek askotan ez dituzte ipuinak kontatzeko mekanismoak ezagutzen. Hori kontuan izanik, *Ipuinak Familian* izeneko tailerra antolatu du Elgoibarko Izarrak, Kiribilduz egitasmoaren barruan, Udalarekin lankidetzan. Ipuinak ezagutzeko, sortzeko, entzuteko eta kontatzeko tailerra izango da, tailer esperimental. 15 bat familia batuko dira, guraso eta umek, eta denen artean gauzatuko dute tailerra. Jon Olivares Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Saileko koordinatzaileak gidatuko ditu saioak, baina bertaratzen diren familiekin batera osatuko dute saioetarako materiala, eta guztien artean ipuinen bildumatxo bat sortuko dute. Ipuin hezitzaileak izango dira guztiak, mezu eta eduki eraikitzaileak dituzten ipuinak, hain zuzen ere.

Ipuinak kontatzeko teknika eta modu desberdinak daude, eta Jon Olivaresen ustez denak dira baliagarriak, gogoz eginez gero. Ipuinak kontatzeko bi modu nagusi bereizten ditu Oliva-

resak: Ipuinak kontatzea eta ipuinak irakurtzea, ez delako gauza bera. "Ahotsaren erritmoa, tonua, keinuak, begiradak, interpretazioa... dena da beharrezkoa ipuinak kontatzeko, eta hori oso desberdina izaten da kontatzen ari garenean ala irakurtzen ari garenean". Teknika bat zein bestea erabili, garrantzitsua ipuin kontalariak ipuina bere egitea da, edukia barneratzea, konfiantza hartzea eta ziurtasunez kontatzea. Era berean, ez da gauza bera euskarri fisiko bat erabiliz kontatzea ipuina, ala norberaren gorputz eta ahotsa soilik erabilita kontatzea. Jon Olivaresek emango ditu ipuin kontaketa oinarriko azalpen teorikoak, baina saio praktikokoak izango dira. Gurasoek ipuinak kontatzeko baliozko tresnak barneratzea da tailerren helburua.

Euskara hutsean

Hizkuntza transmisioa dauka helburu Kiribilduz egitasmoak, eta horixe izango da tailer honen helburua ere. Saiok euskara hutsean izango dira, beraz, ezinbestekoa da parte hartuko dutenek euskaraz ulertzea. Hiru saio antolatu dituzte, azaroaren 11, 25 eta abenduaren 16rako, eta azken saioan ipuin kontalari profesional bat etorriko da ipuinak kontatzera. Ilande arratsaldetan izango dira saioak, kultur etxeko sotoan, 16:30etik 18:30era. Antolatzaileek egitasmoaren balantzia egin ostean erabakiko dute datorren urtean errepikatuko duten edo ez.

'Euskara ala ezkara' zikloaren inguruko kronika eta ikus-entzunezkoak Interneten



Euskararik gabe ez garela zioen Gotzon Garatek. Izatekotan, euskararekin izan behar ginela, eta horixe berretsi zuten urriaren 6an *Euskara ala ezkara* ziklora batu ziren kulturgileek. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatu zuten zikloa, IMH eta DanobatGroupen babesarekin, eta Euskal Herriko hamaika bazterretatik etorritako euskaltzale eta kultura zalez bete zen IMHko areto nagusia; 120 lagun guztira. Ziklo hark eman zuenaren laburpena BARRENEN jaso genuen urriaren 11ko zenbakian, baina orain, ikus-entzunezko materiala eta hitzaldien kronika guztiak eskegi ditugu Interneten, www.euskaraalaezkara.eus webgunean, 2009az geroztik Gotzon Garateren omenez antolatu duten zikloaren berri emateko propio sortutako webgunean. Aurtengo zikloaren inguruko informazioaz gain, aurreko edizioen berri ere jaso ahal izango duzue hor, urtez urte.

Amelia Tiganus ekintzaile feministak hitzaldia eskainiko du Mendaron, astelehenean, azaroaren 12an

Feminista, hezitzailea eta *Feminicidio.net*eko partaidea da Amelia Tiganus, eta astelehenean, 18:30ean, hitzaldia eskainiko du Mendaron, Jubilatuen lokalean (Herriko Enparantzan, Lagun Betikoak taberna ondoko lokalean). *La prostitución: ocio y negocio masculino* izenburua eman dio hitzaldiari, eta bere esperientziatik abiatuko da Tiganus. Izan ere, Errumanian saldua izan ostean, bost urtez ibili zen klub batetik bestera prostituzioan, eta sare hartatik irteeta lortu zuen duela hamabi bat urte. Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak antolatu du hitzaldia, Udalaren laguntzarekin.



Gaba beltza kalejira egingo du Birakak gaur

"Kalejira beldurgarria" iragarri du gaurko Biraka dantza taldeak. 18:30ean abiatuko dira Kultur Etxe paretik eta Errosario kaletik Kalegoen plazarainoko kalejira egingo dute. Plazan, 19:00etan, dantza emanaldia egingo dute. 180 ikaslek parte hartuko dute, eta Gaba beltzeko edo Halloween giroko dantzak dantzatuko dituzte. Orduerdian pasatxoko emanaldia izango da, "umore dosi handikoa eta ondo pasatzeko antolatutakoa", baina, hala ere, antolatzaileek ohartarazi dute gaiagatik beragatik gerta daitekeela ume txikiak beldurtzea.

Idazkuntza tailerra eta ipuin lehiaketa, Mendaron

Idazkuntza tailerra antolatu du Zubigaztek Mendaron azaroaren 11rako. LHko laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleei zuzenduta dago tailerra eta liburutegian izango da, 16:00etatik 18:00etara. Era berean, euskarazko ipuin lehiaketa ere antolatu du Udalak, urtero egin ohi duenez. Abenduaren 3rako aurkeztu beharko dira ipuinak udaletxean eta sari banaketa ekitaldia abenduaren 24an egingo da, 18:00etan, Olenzero eta Mari Domingi herrira iristean batera. Argibide gehiagorako: www.mendaro.eus.



'Black is beltza' filma aurkeztuko du eguaztenean Fermin Muguruzak Elgoibarren

Fermin Muguruzak musikari eta kulturgileak *Black is beltza* helduentzako animaziozko filma aurkeztuko du Elgoibarren, hilaren 14an, (Herriko Antzokian, 19:00etan), Sare Elgoibarren ekimenez. Iruñeko sanferminetako erraldoiek 1965. urtean New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatatu zuteneko istorioa kontatzen du filmak, duela hamar urte Muguruzak berak eleberri batean jaso zuena. Hasiera-hasieratik izan zuen artista nafarrak istorio horrekin animaziozko film bat egiteko nahia, baina orduan ezin, eta orain egin du, Jorge Alderete marrazkilaria argentinarra eta Harkaitz Cano idazleak lagunduta. 1965eko hartan, lege arrazistak tarteko, agintari ipar-amerikarrek debekatu egin zieten Iruñeko erraldoi beltzei desfileen parte hartzea, eta pasadizo hartatik abiatuta, 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera munduan gertatzen ari ziren iraultzen berri eman du Muguruzak *Black is beltza* intrigazko filmean. Nolanahi ere, filmak ez du beltzen harrotasun mugimenduaz bakarrik hitz egiten, protagonistak bidaian aurkituko dituen musikak ere bildu dituztelako.

Gertaera fikzionatua

Benetako gertaera batean du abiapuntua beraz filmak, baina fikziozko pertsonaia batean gorpuztu dute istorioa. Muguruzak, Canok eta Alderetek Manex Unanueren istorioa asmatu dute. Erraldoi beltz horietako bat garraiatzeko ardua zuen fikziozko pertsonaia da Unanue, eta gazte haren begietatik kontatuko dituzte 1960ko hamarkadaren erdialdean gizartea errotik astindu zuten gertaerak: Malcolm X-ren hilketak eragindako kaleko gatazkak, Black Pantherrek Kubako zerbitzu sekretuekin harilkatutako harremana edo hippyen hastapenak, Gerra Hotzaren oihartzuna eta alde bietako espioen artean zeuden interes eta katramila ezkutuak... Kuban urte batzuk pasatu eta trebakuntza berezia jaso ondoren, Che Guevara ezagutuko du Manexek eta egiteko delikatu batean abiatuko da gero: Black Panther bat Ameriketako Estatu Batuetatik atera eta Habanaraino eramatea. Horretarako, alderik alde zeharkatuko du mundua Manexek.

Euskaraldian parte hartuko dutenentzako formazio saioa, Mendaron

Zer egingo dugu Euskaraldia ariketak irauten duen 11 egun horietan? Zelan jokatu egunero Ahobizi banaiz? Eta belarriprest banaiz, zer egingo dut? Zelan erantzungo dut egoera jakin batzuetan?... galdera ugari sor daitezke, eta horientzako erantzunak topatzeko prestakuntza tailerra egingo dute Mendaron azaroaren 13an (martitzena). Tailerra udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etan hasita, eta Euskaraldian izena eman duten guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Ibon Aginaga UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikariak zuzenduko du saioa.

Bestalde, ostiral honetan ere mahaia jarriko dute Mendaroko Euskaraldia Taldekoek plazan, herritarrek ariketa honetarako izena eman dezaten (18:30). Dagoeneko 141 lagunek eman dute izena, eta kuadrillaz kuadrillako kanpaina hasi dute orain eragile taldekoek. Azaroaren 20an, berriz, Musika Eskolakoek frontoian egingo duten jaialdian izango dira, azken bultzada emateko prest.

Bielorrusiako orkestra zuzenduko du urtarrilean Jose Miguel Laskurainek

Begarako txistulari bandako eta Musika Eskolako zuzendaria eta Debabarrenako Orfeoiko zuzendaria da Jose Miguel Laskurain, eta urtarrilean, Bielorrusiako Irtati eta Tebistako orkestra zuzenduko du. Errusiako konpositoreei eskainitako programa izango da. Urtea amaitzerako, baina, beste kontzertu batzuk ere lotuta ditu. Abenduaren 1ean, Miranda de Ebroko Gregorio Solabarrieta Ganbara Orkestra Gaztea zuzenduko du; abenduaren 29an, berriz, Aliza Musikala zuzenduko du Bilboko Euskalduna jauregian, eta urtarrilaren 2an Baleararten izango da, Iruñean, Begarako Musika Eskolakoekin.

'Logikomitoak' antzezlanaren bihar, zapatua, eskainiko du Taupadak

Urriaren 26rako zuten iragarria berez emanaldia, baina eguraldi txarrragatik atzeratu egin behar izan zuten ezinbestean, eta azkenean, bihar, zapatua, eskainiko du Tapauda taldeak, *Logikomitoak* antzezlanaren. Bolatokiko parkean izango da, 20:30ean. Antzezlan honetan euskal mitologiako pertsonaie-tan oinarritu dira, errealitatea eta fantasia uztartuta. Guztira 32 pertsonak hartuko dute parte antzezlanaren: Taupadako 14 aktorek eta 18 es-trek.



Danobatek bere Euskara Plana aurkeztu die beste enpresa batzuetako ordezkariari, Euskaragiletu programaren baitan



Danobatek atea zabaltu zuten urriaren 30ean, bere Euskara Planaren berri emateko. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren baitan, euskararen normalizazioan aurreratuta dauden enpresek osatzen dute Euskaragileak enpresa-batzordea. Enpresa horien esperientzia gertutik ezagutzeko eta euskalduntzean urratsak ematen hasteko, Euskaragiletu programa jarri zuen martxan Kontseiluak, eta horren baitan egin zen bisita hau. Lau erakundetako ordezkariak izan ziren Danobaten: Fagor Automotion Usurbil, Eika, Gorosabel eta OBE Hettich. Euskara arloan bizi dituzten oztopo eta erronkei buruz eztabaidatzeko aukera ere izan zuten.

'Lo mejor de Yllana' antzezlanaren gaur, Elgoibarren

Yllana konpainiak 25 urte bete zituen 2016an eta urteurrena ospatzeko prestatu zuten antzezlanaren gaur Elgoibarren eskainiko dute *Lo mejor de Yllana*. 1991. urtean sortu zuten Yllana konpainia eta ordutik gaur artean eskaini dituzten esketx eta gag onenak batu dituzte ikuskizun berri honetan: 25 guztira. Konpainia mutua da Yllana, hitzik erabili gabe asko esaten duena. Garai bateko Tricycle konpainiaren izpiritu du, baina Tricyclekoak baino transgresoreagozat jo dituzte kritikoei. Gaur, Herriko Antzokian izango dira. 20:30ean hasiko da ikuskizuna eta sarrierak Kutxa bidez erosi behar dira aurrez, edo lehiatilan bestela.

Intza Urangak irabazi du euskararen eguneko esaldi lehiaketa

Intza Uranga mendarorak irabazi du Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak Udalarekin lankidetzan antolatutako esaldi lehiaketa. "Aldapan gora edo behera... iritsi dadila dena!" izan da Urangak aurkeztu duen esaldia. Kamiseta egingo dute orain esaldi horrekin, 13 eta 18 urte bitarteko nerabeen artean doan banatzeko.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai.
☎ 632 796 081

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. ☎ 631 822 545

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 981 624

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 013 896

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Interna edo orduka. ☎ 680 103 356

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 269 991

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 295 212

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 631 115 608

Lanerako prest. Pertsona nagusiak, umeak zaintzen esperientzi handia, baita garbiketa lanak ere. ☎ 602 152 685

Esperientzia daukat garbiketa lanetan eta adinekoak zein umeak zaintzen. ☎ 631 063 561

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Geriatria eta erreabilitazioko tituluak ditut. ☎ 632 737 903

Lanerako prest nago. ☎ 632 729 663

Lanerako prest nago. ☎ 642 433 893

Asteburuetan lan egiteko prest nago. ☎ 617 914 989

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 115 608

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Euskalduna naiz eta titulua daukat. ☎ 626 490 986

Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ 652 718 719

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest nengoke. ☎ 643 158 669

Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko pertsona euskalduna behar da. ☎ 615 006 733

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 612 293 334

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 616 421 970

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. Orduka. ☎ 631 212 497

Lan egiteko prest. Okin lanetan esperientzi handia. ☎ 631 477 997

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. ☎ 631 891 709

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 638 200 936

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 222 362

Adinekoak zainduko nituzke etxeko langile moduan. ☎ 632 971 173

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan asteburuetan. ☎ 632 424 157

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 688 712 075

Eskaerak

Mekanika/elektromekanikarako langilea behar dugu, berehala hasteko. Bost urte baino gehiagoko esperientzia beharrezkoa. *Esarriauto@gmail.com*
☎ 943 741 480

Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ 605 775 336

San Lazaro egoitzarako sukaldaria behar da. Curriculumak, egoitzako harrieran utzi edo *dir.elgoibar@biharko.org* helbidera bidal daitezke.

ETXEBIZITZAK.....
Pisu bila nabil. Nomina eta kontratua ditut. ☎ 632 839 617

Estudioa alokatzen dut, behar den guztiarekin. ☎ 669 665 252

Etxea merkea erosiko nuke Elgoibarko erdigunean. ☎ 646 390 826

Etxebizitza alokagai daukat Urazandin. Hiru logela, bi komun eta egongela. Dena kanpora begira. Gas naturala du. ☎ 630 653 772

ESKOLA PARTIKULARRAK.....
Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBH. *biribiltxoko@gmail.com*
☎ 630 055 077

Matematika (LH, DBH eta Batxilergoa), kontabilitate, ekonomia... gaietako eskola partikularrak ematen ditut. ☎ 666 042 710

KINTO OSPAKIZUNAK.....
1940an jaiotakoen kinto bazkaria, azaroaren 24an. Maalan elkartuko dira 12:30ean. 13:00etan talde argazkia. Bazkaria, Sigma jatetxean, 14:30ean. Interesdunek 55 € sartu behar dituzte, ES35 3035 0007 2100 7113 5979 kontu korronte zenbakian, azaroak 21erako.

BESTELAKOAK.....
Giltz batzuk aurkitu nituen azaroaren 4an Uparitzaga kalean. DIA supermerkatuko txartel txikia dauka. Udaltzaingoan utzi ditut.

Ume bizikleta urdin bat aurkitu dut Urazandin, belarretan botata. ☎ 943 741 042



administradores
Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Ente de Promoción y Formación Profesional
Asociación Española de Administradores de Empresas

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Komunitateko kontuan ez daukagu erreserbako funtsik aurreikusita, eta jakin nahi nuke derrigorrezkoa ote den edo komunitateari exijitu diezaiotegun halako zerbait sortzea.

Erreserbako funts horrek helburu bakarra du: Etxaldearen mantenturako lanak edo berritze-lanak -ohikoak nahiz ezohikoak- egin ahal izateko baliabideak izatea komunitateak. Eraikinaren eta bertako zerbitzuen mantentze egokirako lanak egitea exijitzen du legeak eta funts hori izateak bermatzen du komunitateak legeak ezarritakoa bete ahal izatea. Hau da, eraikinaren estrukturarari, estankotasunari eta segurtasunari eta bertan bizitzeko baldintza egokiak dagozuen baldintzak betetzen direla ziurtatzea.

Erreserba funtseko dirua, beraz, helburu horretarako erabili behar da. Ezin da diru hori etxejabe batzuen zorrek sortutako likidezia arazoak konpontzeko erabili. Urteko aurrekontua egiteko garaian erabakiko da zenbat diru jarri beharko duten etxejabeek erreserba horretarako.

ONDORIOA: Erreserba funtsa eraikinaren mantentze eta berritze lanetarako erabiliko denez, etxejabe bakoitzak jarri beharreko diru-kopurua partaide-kuotaren arabera izango da.





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak eteko gizontxoari, ostegunean 7 urte bete zituelako. Jarraitu horrela. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **printzesa!** 11 urte! Muxu handi bat maite zaitugunon eta, bereziki, aita-txoren eta Leireren partez.



Zorionak, **morena!** Gozatu zure egunean! Muxu handi bat maite zaitugunon partez.



Zorionak, **Elena,** azaroaren 7an 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Mariaren partez.




Zorionak, **Nuria,** hilaren 7an 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Leireren partez.




Zorionak, **Luma, Laida eta Nile** zuen urtebetetze egunean.



Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **poxpolin,** 11 urte bete dituzulako. Aititaren eta amamaren partez.



Zorionak, **Mara!** Azaroaren 14an 2 urte! Muxu asko aititita-amama, osaba eta, bereziki, Laiaren partez.




Zorionak, **Oihane!** Bi esku bete dagoeneko! Segi horrela, printzesa. Muxu bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Estanis** igandean 2 urte beteko dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Eleirenen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
 Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€
 ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
 Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
 Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€





LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedeen bete hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egina

IkasBAI

akademia




- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

667 261 248

(Leire)

IkasGO

akademia



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

Basarte 13, behea - Elgoibar
 akademi@elgoibar@gmail.com

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359
www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada



9 BARIXAKUA

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

18:30 Gaba Beltza. Biraka dantza taldeak antolatuta. 18:30ean kalejiran irtingo dira Kalebarren plazatik eta Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute. Han, 19:00etan, dantza emanaldia eskainiko dute.

20:30 Antzerkia: *Lo mejor de Yllana*. Herriko Antzokian.

10 ZAPATUA

10:00 Moruko burdin aroko herrixka ezagutzeko irteera. Morkaikok antolatuta, Sigmatik oinez. Autoz igo nahi dutenak 11:30ean batuko dira Idotorben.

20:30 Antzerkia: *Logikomitoak*. Tarpada antzerki taldeak aurkeztuko du, Bolatokiko parkean.

11 DOMEKA

16:00-18:00 Idazkunta tailerra LHko laugarren, bosgarren eta seigarren mai-lakoentzat, Mendaron. Liburutegian. Zubigaztek antolatuta.

16:30 Antzerki familiarra: *Pinotxo*. Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

12 ASTELEHENA

18:30 Prostituzioari buruzko hitzaldia eskainiko du Amelia Tiganus ekintzaile feminista, hezitzaile eta *Feminicio.net* elkartearen kideak. Mendaroko Jubilatuen lekalean.

13 MARTITZENA

19:00 Euskaraldian izena emandako entzako formazio tailerra, Mendaroko udaletxearen udalbatza aretoan. UEMAko teknikari batek emango du saioa.

14 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: Dislexia. Gai honi buruz interesa duten guraso, irakasle eta hezitzaileentzat. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

15 EGUENA

18:00 Gurasoentzako formakuntza: Atxikimendua eta eredu hezitzailea. Idoia Apaolazak eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ikastolako Guraso Taldea, Kalamua Guraso Elkarte, Arreturre Guraso Elkarte, Haurreskolako Gurasoak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

20:00 Mendi Emanaldia: *Dolomiti: piano piano*. Txixibilaldira egindako bidaiak. Morkaikok antolatuta, Musika Eskolako hitzaldi gelan.

16 BARIXAKUA

20:30 Aurrez grabatutako opera emanaldia: *Jonas Kaufmann bajo las estrellas*. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: *7 diasos*. Hai-zeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: Jon Gurrutxaga. Si-nuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

3SC187B BALAY
ARROPA-LEHORGAILUA



445,45€

Kondentsazioa.
Hezetasuna antzemateko sentsorea.
Display
8kg - B

UE55NU7405U
LED SAMSUNG



742,98€

4K ULTRAHD
One Remote Control
2 USB
3 HDMI - 55"

TAS3702C SUNY BOSCH
KAFEGAILUA



28,93€

0,8 litro
Aitzairu herdoilgaitzduen erretilua
Kapsula sistema.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
9 BARIXAKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA	12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA	15 EGUENA	16 BARIXAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Barrenetxea	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagaritza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko Antzokian)



'Ha nacido una estrella'

10 zapatua, 19:00 /
22:15 (VOS)
11 domeka, 19:00
12 astelehena, 21:30



'The rider'

Ongarria Zine Kluba
15 eguena, 21:30

Urrian hildakoak

• **Agripina Garcia Casado**

94 urte, urriak 5

• **Purificación Iriondo Mazorriaga**

77 urte, urriak 10

• **Jose Antonio Iriondo Sangroniz**

77 urte, urriak 18

• **Jose Mari Gurrutxaga Pradera**

76 urte, urriak 23

• **Tomas Olasolo Alcibar-Arechuluaga**

69 urte, urriak 29



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegia



Erretiroa hartuta obrei begira, hori izan ohi da askoren ikusmira. Beste zenbait, usoei jaten ematen egoten dira. Baina zer esan genezake erretiratuaren gainontzeko erdiari jarriz gero begira? Dantzaldira, hitzaldira, 60 + taldearekin Mintxetako zelaiari zenbat bira, edo bilobekin gora eta behera, ezker zein eskubira. Zer litzateke beraien bizimodua eta gure ingurua, horiek guztiak egunero egonean geldi egongo balira?

Ogi zatiak utzi albora eta beste mila gauzatan probesten dute denbora, alperrik galdutakoa usoei hegan ere ez baitoa inora.

Ez da, ez, hori beren eguneroko ogia, alderantziz, adinean gora joan arren gero eta arinago ibiltzen baita garai batetik hona txoria. Dena ez da, baina, aisialdia eta gloria eta erretiroa hartutakoan lasai biziko diren ustea badago ere, beti ez da ona hauen zoria.

Erreparatu bestela pentsiodunen egoerari, sei urtean ezin izan diete eutsi pentsioen hegaldiri, eta Espainiako Gobernuak oraingoz ez die apur gehiago emango pentsiodunen uso bandoari.

Usiak gogoz jaten dituenik bada, baina pentsiodun asko gutxi janda nekez iristen da hilabete bukaerara.

Hori dela-eta, usoen eran hegaka joan ohi dira itxaropenak, nahiz eta herrian pila bat diren usoei baino gehiago behar dutenak. Esaerak dio azkar eta ondo, usoei hegan, eta ehiza denboraldia martxan den honetan, guztiok ezin ibili ehizatarien eran, usoei noiz pasako artegan. Usoei ogia gisa, pentsiodunei ere apurak, emateko gehiago ez dutelako, batzuek, eta besteek, berriaz, direlako xuhurrak edo agian lapurrak.

Bada, pentsiodunekin bat egin dezagun gainontzeko herritarrok ere, pasean usoei bezala, ikusi behar duenak ikusi dezala gero eta gehiago garela, eta ez dugula amore emango berehala.

“Bada, pentsiodunekin bat egin dezagun gainontzeko herritarrok ere, pasean usoei bezala”



Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU **NISSAN X-TRAIL BAT**
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

KAIKO, DEBABARRENA

Osasun arreta
hobea Deba-
barrenerako.

EIBAR OSPITALE BERRIA

Ongi etorri osasun azpiegitura berri honetara: gertuago izango gaituzu, osasun-zerbitzu berrieekin. Debabarreneko biztanle guztiek arreta hobea eta hurbilagoa izango duzue.

Zure zerbitzura urriaren 29tik aurrera. Eibar Ospitale berriaren irekiera eta zerbitzuei buruzko informazioa:

943 03 29 00
eibarospitalea@osakidetza.eus

